



Akelarre. Nestor Barrenetxea



EUSKAL KULTURAREKIN BAT GATOZ

Instituzio-konpromezu gisa hartu dugu xedetzat gure herri honen izpirituaren agerpideei, nortazun eta identitate bakana damaiguten kultur adierazpenei, indar osoz eutsi eta laguntzea.

Eta arreta berezi bat jarritz, ahal dugun indar guztiarekin, gure kulturaren adierazpenetarik gorena den euskararen garapenean.

KONTA EZAZU GUREKIN



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

bertan

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

korrika



Jose Ramon Etxebarria

"Unibertsitatean aspaldian hasi nintzen korrika euskara zabaltzeko"




Santutxuko ihauteriak

1999ko martxoaren 11. zkia. 125 pzt.

Lege gordailua: BI-85-98

Martxoaren 8a ☞ Txepetx Irratia ☞ M31 taldea ☞



Kintana Jauregia.
Badirudi lehenago eta leku berean Markina Torretxea zegoela

Markina Torrearen ondarrak ote dira ba?

Sendeja kalean eta Udaletxearen ondoan hasitako lan batzuek sortu dabe eztabaida. Hor agertzen diren hondar horiek XVI mendeko Markina Torrearen ondarrak dira ala ez? Inaki Rham historigileak, baietz esateko arrazoiak daudela eta beraz babestu egin behar direla dio. Dirudenez, Torre hau San Nicolás inguruan bizi ziren arrantzaleak babesteko eraiki zen, korsarioak heltzen baitziren Ibaizabaletik gora.

ARGITARATZAILIA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa: 94 473 54 48
e-posta.:
berton@mail.com

ZUZENDARIA:
Aitziber Laskibar

ERREDAKZIOA:
Unai Cuevas,
Arrate Diez, Urtzi
Urrutikoetxea,
Zuriñe Uriarte.

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Inaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea,
Benito Fiz

KOLABORATZAILIAK:
Jaione Letamendia,
Itxaso Perez, Alber-
to Ugarte, Inaki
Gaminde, Edurne
Basozabal, Idoia
Irastorza, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertsu Eskola, Igor
Zorrozueta, Inaki
Aurrekoetxea, Jose-
ba Zelaia.

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Joxe Garcia

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.000

AURKIBIDEA



<i>Gazi-Gozoak</i>	4	<i>Santutxuko Ihauteriak</i>	19
<i>Errezetak</i>	5	<i>Txepetx Irratia</i>	22
<i>M31 talde astronomoa</i>	6	<i>Kirola</i>	24
<i>Hileko Argazkia</i>	7	<i>Bideak</i>	26
<i>Begoña eta euskerea</i>	8	<i>Komikia</i>	28
<i>Martxoak 8</i>	10	<i>Mendi bidea</i>	29
<i>Jose Ramon Etxebarria</i>	12	<i>Horoskopoa/Agenda</i>	30
<i>Inkesta</i>	15	<i>Bertsuak</i>	31
<i>Mahatsberriak</i>	16		

Aupa Mahatsorriok!

Korrika, korrika! Ika, ika, ika, badator korrika! Zer ondo! Nik oso gogoko dut korrika. Irakaslea ez dago ni bezain pozik, zeren berak beti lan piloa egin behar du Korrikarekin, baina nik hain gogoko dut, ezen orain dela hiru hilabete hasi bainaiz entrenatzen. Aurten aurrekoan baino kilometro gehiago egin behar ditut, eta gainera aurten putada bat dago, zeren Bilbotik Txurdinagatik irtengo du Santo Domingon gora, eta nik Bilbotik irten arte egin nahi dut. Eta Igandean Donostian geratu naiz barnetegikoe-

kin, eta Berton eroango diet inbidia emateko, ikus-teko gurean Joserra Etxebarria bezalako euskaltzaleak ditugula, eta zelako ihauteriak dauden Santutxun, eta zelako artistak, astronomoak, komikigileak eta abar digutun hemen. Eta jende piloak dakiela euskaraz eta irakurtzen duela aldizkaria, eta neuk ere ikasi dudala, eta gainera hemen idazten dudala, eta EGA barik. Eta eurek bakarrik pentsatzen dutela mintza-praktika tabernetan egitean eta atariko probak egitean. Eta gainera beti egiten dut eurek baino kilometro gehiago.

Firmaute: Mahatsorriberrria

Hau da hau jenero ona!

Alimentación **GRATIS** **paquetes de REO 176 grs.**

ESPECIAL LEGUMBRES LEGUMINA BEREZIAK

Orrialde erdietan ikusi

Vea páginas centrales

Euskarak saldu egiten du! Ondo saldu ere. Janariaren sektorean behinik behin. Egunero etxeko postontziak betetzen dizkiguten eskaintza koloredunen artean aspaldian hasi ginen euskarazko izenak ikusten, eta ikasten ere bai. Jakin genuen garbantzuak txitxirioak direla, eta esparragoak zaintzuriak, besteak beste.

Bertoko supermerkatu-katea bat hasi zen panfletoak ele bitan egiten, eta konpetentzia apurka-apurka imitatzen hasi zaio, eta kontu txarra ez da euskara eta euskaldunontzat. Hala da ze, Begoñan eta Santutxun supermerkatuak dituen katea batek euskaldunok limurtu guran-edo, erdaldunei eskaintzen ez dien mezu subliminala bidali digu. Erdaraz lekadunen eskaintza bereziaren berri ematen du panfletoko erdiko orrialdeetan, baina euskaldunontzat indaba, txitxirio eta dilista espezialak dauzkate. Horiek eskuratzeko orrialde erdietan bilatu beharko dugu mezu kodifikatua, antza. Ondo da diskriminazio positiboa, baina hurrengoan ez izan hain kriptikoak, gu oraindik gabiltza legumina berezi horiek topatu guran eta.



Karran parau barik

Hemen dator atzera KORRIKA. Hau hamaikagarrena, eta hamaika kilometro egingo ditu honek ere, eta hamaika lagunek egingo dituzte euren zatitxoak. Mahatserrian zehar ere pasatuko da (lerro hauek irakurri orduko joanda egongo da agian), Uribarri, Zurbaran, Begoña, Santutxu, Txurdinaga eta Otxarkoagatik hurrenez hurren. Eta Bertonekooi kilometro bat egiteko esan digutenez, ba, txandala eta zapatilak hartu eta karran egingo dugu geuk ere. Eta gainera, sari gozoa emango diegu AEK-koei, joño! Gurekin gogoratzeagatik baino ez bada ere. Baina KORRIKAK ondo gogorarazten digun legez, euskararen normalizazioarena benetako fondo-lasterketa da, indarrak ondo dosifikatzea eta banatzea eskatzen duena. Beraz, ez erre indar guztiak egun batean!



korrika

korrika kulturala

errezetak

Patatak saltsa berden

Osagaiak

- Patatak (lau pertsonentzat kilo bat inguru. Oso jatunak bazarete, gehiago)
- Makailoa (isats bat nahikoa da, gauza ez baita makailoa jatea,
- patatei zaporea ematea baizik. Makailo dendentan saltzen dituzte, beren-beregi)
- Berakatza
- Perrexila
- Olioa



Plater goxo-goxoa presta zenezake, eta merke gainera. Nahi izanez gero, arraultza egosiak ere jar ditzakezu pateran, zerbitzerakoan.

Prestatzeko era:

Sukaldean, edozer prestatzen hasterakoan, komeni da ontzi eta osagaiak prest edukitzea, ustekabeko zalapartak ekiditeko. Dena prest duzunean, jar ezazu sutan lapiko bat, olio pixka batekin. Olioa berotzen denean, bi berakatza ale txikituta bota itzazu bertara. Kolore apurtxo bat hartzen dutenean, makailo isatsa erants iezaiozu (aurretik, txorrotazpian, urarekin, gainean daraman gatza kenduta) eta zurezko goilaraz buelatak eman. Jarraian, patatak zatituta erants iezaizkiozu eta goilaraz nahastu. Perrexila txikituta erantsi. Nahastu berriro eta ur beroz estali (estali bakarrik, ez uretan igerian jarri). Hogei bat minututan irakiten eduki, noizean behin nahastuz. Ez du gatz beharrik. Esanda bezala eta "intentzioa" jartzen badiozu, ikusiko duzu zein plater goxoa prestatuko duzun.

On dagizula!

Lanbroa

MENDIA BILBO 82

Santutxuko poteo gunea

MESÓN GURETXE

Santutxuko poteo gunean

M31 elkarte astronomoa



⇒ **Arrate Diez**

Begoñako Udalttegiko lokal batean biltzen den astronomi elkarte dugu M31. Hogeita bost bat pertsonak osatzen duten talde honek astronomia eta inguruko gaiak aztertu eta aisialdirako tailerrak antolatzen dituzte.

Noiz sortu zen taldea?

1996ko martxoan elkarte modu ofizialean eratu genuen. Hasieran, hiru pertsona geunden baina berehala bildu ginensei. Handik aurrera handituz joan da eta gaur egun 25 pertsona gara eta beste bost kolaboratzaile moduan dauden argazkilariak...

Zelan sortu zen astronomia elkarte egiteko ideia?

1992an BBVn konferentzia batzuk antolatu zituen eta bertan Francisco Sánchez, Canariastaki Institutu Astrofisikoko partaideak hitz egin zuen.

Konferentzia horrek inpaktatu egin gintuen eta aurrera jotzeko animatu ere.

Gero ta jende gehiago dago interesatuta astronomiaren inguruko gaietan, gero ta gehiago hitz egiten da astronomiaren zientziari buruz, baita kosmologiari buruz...

Handik aurrera taldea osatu genuen eta 1996an lokal bat konpartitzen hasi ginen beste talde batzuekin batera Begoñako Udaltegian.



Zer aktibitate egiten dituzue?

Denarik egiten dugu, hilero pelikulak emititzen ditugu eta erreportaiak antolatzen ditugu jende guztientzat. Aurreko urtean zortzi aktibitate ezberdin prestatu genituen, besteak beste, tailerrak antolatzen ditugu, baita irteerak ere.

Tailerren artean teleskopioak sortzeko tailerra bat da, edo astroinformatikako tailerra ere oso interesgarria da. Hau da, internetetik irudiak jaso, NASAko informazioetik zuzenean denbora errealean.

Espainiako estatuan gure moduko 70 bat elkarte daude gutxi gora behera. Batzuek beste batzuk baino laguntza gehiago jasotzen dute instituzioetatik, eta azpiegitura hobekak dituzte, obserbatorio handiak...

Gure asmoa pertsona bakoitzak bere materiala sortzeko gai izatea da eta horretarako asesorazio kurtsoak antolatzen ditugu.

Zer pertsonak hartzen duzue parte taldea?

Denarik dago, ikasleak, langileak, topografoak, ...astronomiarekiko afizioa dugu komunean. Bildu egiten gara eta leku ezberdinetara joaten gara zeruko hainbat zati ikusteko eta guztien artean gauzak ikasteko asmoz. Hiru hilabetero boletín bat ateratzen dugu eta argazkilaritza eta diseinu astronomikoko tailerrak ere prestatzen ditugu.



Gizakion bizimoduan osasuna jagoteak garrantzi handia daukona ezin ukatu lei; osasuna egonda garaiteko preminei hobeto egin leikie aurre, hain baga, ostera, nekez. Atzen urteotan, alor honetan itzelezko aurrerapenak egin dira, Osakidetzaren gorabehera batzuk albora itziten badoguz; aitzina ez dala, baina, medikua luxuzko zerbitzua izaten zana legez, jendeak jakiten eban gaixo arinak osatuten eta gure inguruan naturak emoneko gauzak erabilia, etxeetan egiten ziren erremedio asko. Honeek ekanduok bizirik iraun dabe guganaino, gaur galduz doazen arren gure parajeko historiaren egunerokotasunaren zati direanez gero batzuk gogotara ekarteari interesgarri eretxi diogu. Bilbon bere, herri medikuntzaren adibide franko topatu geinkez. Jarraian jaso ditugun batzuk ope-tsiten deusueguz jakiteko; batek badaki, erabilteko ere izan litikezan.

⇒ E. Basozabal, I. Gaminde, I. Irastorza, I. Martin de Vidales, K. Urrutikoetxea


BEGOÑA ETA EUSKEREA

Hona hemen gure herrietan hainbat gaixotasunerako erabilten ziren osabide batzuk

Begiskoa

Osabide batzuek oinarri fisikoa eduki leie eta beste batzuek, ostera, oinarri magikoa, gurago bada giza-gorputza kolpatuten badabe bere, gaixo batzuek osabidea gorputzetatik harago daukie. Begiskoa horreтарiko gaixo magiko bat da, hau da, baten batek daukon boterearen bidez beste bateri eragin deutson gaixoa. Begoñan eta Bujan jasoko ondoko testuetan begiskoa aitatu ten da:

"begiskoa, esate san orduen, olan begi fijo, umiek imiñi orduen begi fijo, ori igual ixengo san, estai pa ser ixengo dan se oiñ estot entzun be iten ser dan be ori, ta orduen nire aiten ixeko batek itteuen begiskoa, balak, plomosko, karlistadako baliegas itteuen, a urtu te, an uretara bota ta begiskoa kenduteko (Begoña)" (begiskoa, esaten zan orduan, holan begi fixo, umeak ipini orduan begi fixo, hori beharbada izango zan, ez dakit ba zer izango dan ze orain ez dot entzun bere egiten zer dan bere hori, eta orduan nire aitaren izeko batek egiten eban begiskoa, balak, berunezko, karlistadako balagaz egiten eban, ha urtu eta, han uretara bota eta begiskoa kenduteko), "begiskoa, len asko berba itte san orren ganien (Buja)" (begiskoa, lehen asko berba egiten zen horren gainean).



Umeari inok begiskoa egin ez degion, kutunak ipintzen jakozan paxan lotuta. Behin begiskoa eginda eduki; begiskoarena egin behar izaten jakon. Horretarako trerbatua zan jendea egoten zan; gaur egun espezialista esan geskiona, honek beruna urtu egiten eban zartagin batean eta uretara botata jakiten eban gaixoak begiskoa eukan ala ez, kasu batzuetan bai eta nok eragin deutson bere.

Txakurkume okela

Gizaldi honetako izurria izan dan eta dan biziena osatuteko medikuntza ofizialak aurrerapausuak egin ditu, ha ta guzti bere ezin esan geinke konponbidea erabatekoa danik. Hori dala eta, aurki, herri medikuntzak bide paraleloei ekin deutso. Ondoko testuan biziena kenduteko erremedio bitxi bat dakartsuegu:

"lengo baten esaeuen radioti andra batek, orretariko, olango sorgin betek agindu tzela, gixonari kuretako, kantzerra edo kuretako, txakurkumek e, emoteko dxaten eta etor sala Otxarkoagara txakurrek erosten, txakurkumek erosten kittanueri (Begoña)" (lehengo baten esan eban irratitik andra batek, horreтарiko, holako sorgin batek agindu deusola, gizonari osatuteko, biziena edo osatuteko, txakurkumak, emoteko jaten eta etorri zala Otxarkoagara txakurra erosten, txakurkumak erosten ijitoei).



Asunak

Arteragoko erremediook oinarria sinistean edo fedean daukeela esan geinke. Euskarri fisikoa daukeen artean bedarrak erabilten dituezanak aitatu geinkez. Ondoko testuan asunen propietateak aitatu ten dira gripea kenduteko:

"asunekas gripe edo katarroa kenduteko ta bai ori bai, lepoan e, sertu, alkol apur beteas garbittu te gero, berotuteko ixengo da ori, pentzau neuk e, pika apur bet, asunek pikeu iten deu ba, asunek bero emoten deu (b)" (asunakaz gripe edo katarroa kenduteko eta bai hori bai, lepoan, zertu, alkohol apur bategaz garbitu eta gero, berotuteko izango da hori, pentzau neuk, pikatu apur bat, asunak pikatu egiten dau ba, asunak bero ematen dau)

Atzen hau ondino ez dogu probatu baina, zutariko baten bat ondino gripea aldendu ezinik badabil aproba egin lei eta gero guri kontatu ia funtzionatuten badau, eskerrak emongo deusaguz esperientzia artezagaitik. Gu bagoaz baina hurrengo baten itzuliko gara herri medikuntzagaz.

MARTXOAK 8, EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Jakin, denok dakigu martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzen dena, baina honen jatorria ezezaguna da gehienentzat.

Hona hemen Martxoaren 8aren historia argitzen saiatzen den erreportaia.

Martxoaren 8ari buruzko dokumentazioa eta ikerketak urriak izanik, ulertzekoa da gaur egun data honen inguruan dagoen informazio falta.

Badago, hala ere, Emakumearen Eguna-ren historia argitzen saiatu denik. Horien artean René Côté historiogilea dugu, 1978. urtean gai honen inguruan ikerketa bat egin eta ondoren liburu bat idatzi zuen emakume kanadiarra.

Hurrengo lerrotan, liburu horren arabera Emakumearen Egunaren jatorria eta nondik norakoa duzu irakurgai.

Bertsio ezberdinak

Hiru bertsio dira Emakumearen Egunari erreferentzia egiten diotenak.

Lehenengo bertsioaren arabera, 1857 urtean eta New Yorkeko kaleetan zehar, "Lower East Side" lantegiko emakumeek greba eta manifestaldia antolatu zuten.

Bigarren bertsioak dioenez, 1908.eko Martxoaren 8an, fabrika bateko emakume jostunek beste manifestaldi bat egin zuten, zeinetan poliziak indarkeriarekin erantzun zuten.

Baina bertsio hedatu eta ezagunena, dudarik gabe, lantegi batean itxialdian zeuden ehundaka emakumeren heriotzei buruzkoa da, sute baten ondorioz hil ziren emakumei buruzkoa hain zuzen.

Lehenengo Emakumearen Eguna

Bertsio eta data ezberdinak egon arren, ziurra da Emakumearen Eguna lehenengo aldiz EEBBtan ospatu zena. Dirudienez, 1908. urtean, "Woman's Day" izeneko ekitaldi bat antolatu zuten Chicagoko zenbait emakumek. Biltzar honetan, emakumeak pairatzen zuen egoera sozialari buruz, zein esplotazioari eta hezkuntzaren beharrari buruz hitzegin zen, herriaren garapenaren

emakumearen partaidetza azpimarratuz.

Lehenengo "Woman's Day" ofiziala

Aurreko lerrotan aipaturiko egunetik urte betera ospatu zen lehenengo "Woman's Day" ofiziala, hau da, 1909.ean. Partidu sozialistako emakumeen komiteak antolatu zuen, beraien helburua "emakumeen boto eskubidea aldarrikatzea eta esklabutza sexualari aurre egitea" izanik.



Clara Zetkin (c. 1906)

Ospakizun honen asmoa, beraz, greba eta lan munduko errebindikazioak egitea baino, emakumearen partaidetza sustatzea zen, boto eskubideagatik borrokatuz.

Lehenengo Emakumearen Nazioarteko Eguna

1910. urtean eta Copenhaguen (Danimarkan), emakume sozialisten II. Konferentzia burutu zen. Bertatik, EEBBtako "Woman's Day" eguna nazioartekoa bilakatzearen erabakia atera zen.

Horrela, 1911n, lehenengo Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatu zen Europako herrialde askotan. Hala ere, martxoaren 8an baino, Martxoaren 19an izan zen.

Bien bitartean, EEBBetan otsaileko azkenengo igandean ospatzen zuten egun hau.

Clara Zetkin izeneko emakume alemaniarra hartzen da egun honen amatzat.

Lehenengo Martxoaren 8a. 1914

Emakumearen Nazioarteko Eguna Martxoaren 19an ospatzen jarraitu zen 1914 urtera arte. Urte honetan, alemaniarrek, suediarrek eta frantziarrek martxoaren 8ra pasatu zuten egun honen ospakizuna. EEBBetan data hau ez zuten beranduagora arte ezarri.

1921. urtetik aurrera, Emakumearen Nazioarteko Eguna izaera iraultzailea hartu zuen eta gaur egun, munduko herrialde gehienetan ospatzen da.

Martxoaren 8ra begira, horrela hasten genuen pasa den urteko komunikatua: "Zakarki, beraien senar edo bikotekideek erailak izan diren emakume ugari kasuak jakin izan ditu iritzi publikoak azken bolada honetan. Pentsak, kargu instituzionalak dituzten zenbait emakumek, alderdi politikok, ... gogor salatu dute hau. Aldi berean, kode penalaren arlo horretan aldaketak egongo direla hitz eman dute eta haien emazteak tratu txarren bidez erasotzen dituzten gizonentzat zigorrak gogorragoak izango direla. Baina hauek guztiak faltuak izango direlakoan gaude".

Gaur, geroztik ure bete pasa denean, berriz ere azpimarra dezakegu legeak berdin jarraitzen duela, gure susmoak egiaztatu baitira eta aipatu halaxe, ez da legerik aldatu emakumearen onurarako.

IDUNAtik, hau guztia bizi garen gizarte matxista, sexista, patriarkal eta ezbidetzakoaren emaitza dela uste dugu eta horregatik da interesgarria gizarte aldatzen lagunduko dizkiguten medioak potentziatzea. Medio

hauetariko bat "Lizarra-Garazi" akordioa dela pentsatzen dugu, honek Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoari irtenbidea eman ondoren, euskaldun guztioi hitza emango ligukeelako.

Prozesu honetan emakumearen presentzia ezinbestekoa litzateke eraikitzen doan gizarte justua izan dadin bermatzeko.

Azkenik, gogoraztea Martxoaren 8an emakumeek ez dugula ezer ospatzerik eta gogor salatu behar ditugula dauzkagun oztopo eta gabezi guztiak.

Dena den, IDUNAtik proposatzen dizuegu Martxoaren 8ra soilik ez mugatzea eta egunero arlo honetan lan egitea.

⇨ Idurre Urgoiti eta Irune Berro IDUNaren izenean (Santutxuko neska gazteak)

korrika



PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!



SAAK

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA



Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59



Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 473 10 65

Joxe Ramón Etxebarria

"Unibertsitatean aspaldian hasi nintzen korrika euskara zabaltzeko"



Unibertsitatea euskalduntzeko helburuz makina bat lan egina da Joxe Ramon Etxebarria santutxuarra. Ildo horretatik, eta beste eredu bateko Euskal Unibertsitate bategatik borrokatzeagatik duela zazpi urte EHUtik kaleratu zuten; hala ere, oraindik horren aldeko borrokan jarraitzen du. Aurtengo Korrikak omenduko dituen 11 pertsonetako bat dugu Joxerra, unibertsitate munduan euskara normalizatzeko lana goraipatu asmoz.

Arrate Diez

Zergaitik uste duzu izango zarela omendua a urtengo Korrikan?

Niri omendu hitza ez zait gustatzen. Aukeratu naute prozesu bat dagoelako, jendea korrika dabilelako euskara salbatzen; eta ni unibertsitatean aspaldi hasi nintzen beste lagun batzuekin korrika, segitzen dute korrika eta korrika segitzeko asmoa dugu.

Uste duzu zu aukeratzean beste norbait ere aukeratu sentituko dela?

Nire ustez bai, ni aukeratu banaute unibertsitatean euskararen egindako lanagaitik izan da. Unibertsitatean nirekin batera hainbat ikasle egon zen, euskal adarra sortzen euskal kultur taldeetan. Udako euskal unibertsitatea sortzean ere, hainbat pertsona egon zen. Liburua prestatzean ere jende asko egon zen nirekin batera. Horiek guztiak, beraz, aldi berean aukeratuak izan dira. Niri tokatu zait, denak batera ezin direlako aukeratu, baina aldi berean nirekin egon diren guztiak aukeratu dituzte.

Zein da euskararen egoera unibertsitatean momentu honetan?

Korrika gabiltzanez, orain dela hogeitaz hamar urte barru baino txarrago. Baina nire ustez, oraindik, hainbat lan dago egiteko, nahiz eta azpiegitura lan guztiak eginda dauden. Hau da, hizkuntzari

dagokionez, hizkuntza prestatuta dago, euskal lerroak abiatuta daude, baina oraindik ez daukagu euskal unibertsiterik. Prozesu hau euskal unibertsitatea lortu arte egongo da martxan.

Zein da irakasle kaleratuen egoera gaur egun?


Kuriosoa da; unibertsitatean egindako lanagatik aukeratu naute eta unibertsitateetik kalera bota naute. Ia nork ulertzen duen hori; guztiz ilogikoa da. Momentu honetan blokeatuta dago arazoa, baina nik gauza bat argi daukat: Euskal Herrian normaltasuna lortu nahi bada, unibertsitatea ere normalizatu beharko

"Unibertsitatean aspaldi hasi nintzen beste lagun batzuekin korrika, segitzen dut korrika eta korrika segitzeko asmoa dugu"

da. Eta unibertsitatea ezin da normalizaturik egon gu despedituta egonda.

Zazpi urtez irakasle kaleratu moduan bizi izan eta gero, zein da zuen etorkizunerako ideia?

Guk gure burua unibertsitate barruan ikusten dugu. Euskal Herriaren egoera politikoa aldatzen den neurrian, gure egoera ere aldatu egingo da. Benetan Euskal Herria bere burujabetasunaren bidean badoa, egunen baten



korrika



Badakigu euskal adarra sortu baino lehen, zuk euskarazko klaseak ematen zenituela. Gaur egun jendea horrelako konpromezuak hartzeko prest dagoela uste duzu?

Bai, egongo dira, seguru. Garai haiek beste garai batzuk ziren, beste egoera bat zen. Guk ekintzaile modura egiten genuen, militantziaren parte bat modura, eta horregatik oso pozik geunden. Orain ere jendea prest dago ekintzaile

modura lan egiteko. Beti dago baten bat ilusio bat, helburu bat edo utopia bat daukana.

Gauzak ez dira interesagatik bakarrik egiten, eta ondoren egiten diren gauzak interes barik egiten direnak dira; horiek dira satisfakzio gehien ematen dutenak.

Arlo zientifikoan ere, euskararen aintzindari izan zarela jakina da, UZEIren fisika hiztegia aurrera atera eta gero. Uste duzu euskara alor guztietara egokitzen ari dela?

Bai, nik uste dut zientziaren edozein arlotan gaur egun euskaraz egin nahi baduzu, lasai-lasai egin daikezula. Hasieran arazotoak egoten dira baina praktikarekin guztiak gaintitzen dira.

Askotan erabili ei dute aitzakitza euskara ez dela alor guztietara heldu. Zer uste duzu?

Anekdotak bat kontatuko dut. Orain hogeitaz hamar urte, Adolfo Suárez Espainiako presidentea izanda, unibertsitatean hasi ginen euskaraz egin behar zela esanez. Adolfo Suarezek esan zuen ezinezkoa zela fisi-

ka nuklearra euskaraz irakastea. Orduan nik erantzun nion bi gauza behar zirela horretarako: lehena euskara jakitea eta bigarrena fisika nuklearra jakitea. Nik neuk, ordurako fisika nuklearreko klaseak ematen nituen euskaraz.

Zein da zure ustez euskararen egoera Mahatse-rrian?


Euskararen egoera hemen ere aldatuz doa; oraindik

Zelan ikusten duzu "Bai euskarari" akordioa? Uste duzu konpromezu zehatzagoak eskatu ahal direla?

Bai, eskatzea libre da. Nik ondo ikusten dut eskatzea, baina bakoitzak inplikazioaren bat izan behar du. Batzutan, egiten duguna gitxi izan dela dirudi eta jendeak uste du gauza gitxi egiten direla, baina ahalegina eginez gero, prozesua aurrera doa.

Nik "Bai Euskarari" kanpainan ikusten dut poliki-poliki bakoitzak konpromezu bat gehiago hartzen dutela. Gainera, pertsona berriak sartzen dira konpromezuan. Bakoitzak zerbaiten konpromezua hartzen baldin badu aurrerapausua da.

"Niri tokatu zait, denak batera ezin direlako aukeratu, baina aldi berean, nirekin egon diren guztiak aukeratu dituzte"



jo ta ke
Otxarkoaga
euskaldundu arte!
Pa... Yak baditu alternatibak
demokratikoak noski!!



GABILTZA
E.K.M.
PRENTSA BANAKETA

MAHATSBERRIAK

Mahatserrian azkenokaz izan direnak



Biztanlegoaren zahartzea eman da azkenaldian Otxarkoaga eta Santutxun.

Otxarkoaga eta Santutxun adineko pertsonen portzentaia altuak

Bi hauek, Bilbon dauden auzo-etatik, 65 urtetik gorako pertsonaia gehien bizi diren auzoak dira. Otxarkoagak dituen 13.106 biztanleetatik %19k 65 urte baino gehiago ditu. Santutxun, bestalde, 37.073 biztanleetatik %16k 65 urteak gainditzen ditu. Datu hauek, Bilboko hiritar harremanen zerbitzuak egindako ikerketa batetik atera dira. Bi auzo hauetaz gain, Boluetan ere jubilatuta ugari bizi dira; 4.061 biztanleetatik %13k 65 urte baino gehiago baititu. Begoñan ere, portzentaia nahiko altua dugu, ia 800 pertsonen (%12k) adin hori gainditzen baitute. Kontrako aldean Txurdinaga ageri

zaigu. 16.774 biztanleetatik bakarrik %8 dira jubilatutak, honela Bilboko auzorik gazteena izatera heldu da. Ikerketa honetan, biztanlegoaren jatorria ere aztertu da. Honetan zera adierazten da: Otxarkoagako biztanleen %41 kanpotik etorria dela, Boluetan %35 eta Santutxun %34. Begoñan eta Txurdinagan, aldiz, Euskal Herrian jaiotakoak gehienak dira, kanpoko jatorria dutenak %24 eta %27 baitira. Dentsitateari dagokionez, Santutxun metro karratuko 619 pertsona bizi dira (Bilboko auzorik dentsoenetariokoa da). Otxarkoagan 367 pertsona bizi dira metro karratuko eta Begoñan 327.

Lauaxeta plazako administrazioa berriro ere sariak banatzen

Santutxuko Lauaxeta plazan dagoen 51. administrazioak 200 milioi pezeta banatu zituen bere auzokideen artean. Kasu honetan, loteria-kari nagusia 23.496 zenbakiari zegokion eta administrazio honek serie bi osorik saldu zituen. Gogoratu beharra dago, kinielei zigilua jartzen 27 urte eta loteria saltzen 5 urte daramatzan administrazio honek "El niño" loteria-rekin 2.400 milioi banatu zituela. Bestalde, aipatu behar da urte hauetan guztietan inoiz ez dutela honelako saririk banatu.



Txurdinagako parkean hildako arrain eta ahateak aurkitu dituzte

Txurdinagako Europa parkeko uharkan bi ahate eta hainbat karpa hilik agertu dira. Aintzira artifizial honen drenatze eskasean hildako bi ahate eta karpa ugariz gain, zabor hondakinak ere agertu izan dira. Obra eta zerbitzuen zinegotzigotik azaldu dutenez, putzua bi edo hiru astero hustu egiten da garbiketarako, gehienez bi egun irauten du horrela. Kasu honetan egun gehiago egon da egoera larrian eta agertu izan duen egoera nahiko penagarria izan da. Hilda aurkitutako ahateei dagokionez, inguruko auzoki-

de batek adierazi izan duenez txakur bat izan da hiltzaila. Datu hauekin berretsi egin dituzte Udaleko obra eta zerbitzuen sailetik.

Ingelesak Begoñazpi ikastolarekin elkartuta

Liverpooleko ikasle eta irakasle batzuei Bilboko udal-txean ongi etorria egin zien alkateak pasa den Otsailean. Harrera hau, Txurdinagako Begoñazpi ikastola eta Europako beste irakaskuntza zentru batzuen arteko proiektu hezitzaile baten barruan kokatu behar da.

Euskaraokea Santutxun

Ixiar Orejak aurkezten duen ETB-ko "Euskaraokea" saioa Santutxuko Karmelon plazan izan genuen. Bertan, Karmelo, Kirikiño eta Briñas ikastetxetako gaztetxoak aritu ziren abesten. Plaza, gazte (eta ez hain gazte) bete zen eta arratsaldea kantu-kantari igaro zuten.




Santutxun zaborrontzi berriak jarriko dituzte

Udaletxetik adierazi dutenez, martxo aldera zaborrontzi berriak jarriko dira Santutxun. Horiei dagokien lekua adierazteko, gabonak baino lehen pibote berdeak jarri ziren kaleetan. Baina hainbat auzokidek bere ezadostasuna adierazi du denbora ugari pasa delako jarri gabe eta aparkatzeko lekua kentzen dutelako.

Zaborrontzien kokapena seinalatzeko jarritako piboteak orain dela lau hilabete jarri ziren.

Txurdinagako parkera ahate gehiago eraman dituzte

Doña Casilda parkeko obrak direla eta, han zeuden ahate gehienak Txurdinagako Europa parkera lekualdatu dituzte. Orotara, 50 ahate inguru izan dira lekuz aldatu dituztenak. Ahateak oso ondo egokitu dira "etxe" berrira eta Udaleyik adierazi dutenez bertan geldituko dira. Horretarako, hurrengo hiletan etxola berri bat eraikiko diete. Honela, Doña Casilda parkerako ahate gehiago erosi beharko dituzte.



Ahateei txabola berria eraikiko diete

Abesbatzen astea Begoñako baselizan

Pasa den otsailean Bizkaiko Abesbatzen XXVI. astea ospatu zen Begoñako elizan. Bizkaiko hainbat herritako abesbatzak izan genituen, horien artean Mahatserriko batzuk. Besteak beste, Agrupación coral "Otxarkoaga", Jatorki Abesbatza, Escolania Nuestra Señora de Begoña eta Garazarko Matsorriak. Guztira, 50 abesbatza inguru aritu ziren eta erakutsitako maila nahiko altua izan zen.

ERRIKARRIA

ERRIKARRIA

Otxarkoagako familien elkarteak bariantearen lanak geldiaraztea eskatu du

Otxarkoagako familien elkarteak salatu duenez, Orue-ta-Ibarsusi barianteak gordetako lurzoruen 30.000 metro okupatzen ditu; eta honegatik gelditzea eskatu dute. Elkarte honetako ordezkariak adierazi dutenez, urbanizagarria ez den eta babespen berezia duen lur honetan Bizkaiko Foru Aldundiak lau karrileko auto-



Ingurugiroaren arazoa dela eta lanak zazpi hilabetez geldirik egon ziren.

Mina del Morro inguruko kale batek Indalecio Prietoren izena eramango du

Bilboko udalak kale bat eskainiko dio Indalecio Prietori (euskal politikari sozialista). Miraflores-etik Santutxu eta Sagarminaga kaleetaraino heltzen den etorbideak politikari honen izena eramango du. Inaugurazio ofiziala maiatzean egingo da eta etorbide horretan Prietoren eskultura bat ere jarriko dute.



Haxe da Indalecio Prietori eskainiko dioten kalea

Bilboko iturri naturalen ikerketa egin du Foru Aldundiak

Bilbon dauden 50 iturri naturaletatik asko ez daude behar bezala kontrolatuta (honek ez du esan nahi mikrobio ugari dituztenik edota ura edangarria ez denik). Horien artean Boluetako Venta El Cuerno iturria daukagu. Iturri honek, minutuko 15 litro isurtzen ditu 17 graduko tenperaturan.

Bizkaiko Foru Aldundiko lurralde-ikasketen institutuak egin duen ikerketan, ur edangarria duen iturburu edo iturri bakarra aurkitu du Bilbo osoan. Hau, Errekalden dagoen Iturri Gorri izeneko da. Institutu honek, datu hauetaz gain, zenbat iturri dauden, iturrien kokapena edota ezaugarriak aipatzen dituen katalogo bat atera du.

bidea egun nahi du. Honekin, garbi geratu da Bizkaiko Aldundiko lan publikoen sailak plan orokorrean zeuden prozedurak ez dituela kontutan hartu, plan orokorrean hiru karril aurreikusten baitziren. Aldaketa hau, Txurdinaga eta Otxarkoagako auzokideek era ilegalean eman zela azaldu dute, eta prozedura judizialari ekin diote. Epaileak, perito neutral bat izendatu zuen eta honek auzokideei arrazoia eman die.

Bestetik, elkarte honetatik adierazi dutenez, Diputazioak ez dio kasurik egin Ingurugiro sailak egindako ikerketari. Honetan azaltzen denez, bide berriak babespen bereziko zona berdeak inbaditzen ditu. Hau guztia, Txurdinaga eta Otxarkoagako auzokideek salatu egin dute, eta ingurune horretan bizi diren 30.000 auzokideenganako erasotzat hartu dute.

Elizen kontrako sabotaiak aldarrikatu dituzte

Emakume talde batek, elizen kontra burututako sabotaiak batzuk bere gain hartu zituen. Ekintza hauek, abortoarekiko eliza katolikoa duen jarrera salatze burutu zituzten. Begoña, Santutxu, Abusu eta Alde Zaharreko elizetako ateen sarrailak seilatu egin ziren sabotaiak hauetan. Seilatze hauen egileek azpimarratu zuten, emakumeak dira haurdunaldiaren nahitako geldierari buruz erabaki behar dutenak, beren semeak baitira.

Hiru gazte larriki zauriturik Txurdinagako garaje batetan

15 urteko gazte bi eta 16 urteko bat larriki zaurituta suertatu ziren motor bat konpontzen zeuden momentuan txingar batek eragindako sutearen ondorioz. Sutea, Txurdinagako Gabriel Aresti kalean gertatu zen, gazteetako baten aitaren garajearen zutenean. Hiruiek erredura larriak zituzten arren, batek zauririk larrienak agertzen zituen. 16 urteko gazte honek gorputzaren %36 zuen erreta, batez ere gorputzadarretan. Beste biek, bigarren eta hirugarren graduko erredurak zituzten esku eta hanketan. Guztiak, Gurutzetako eritetxeko erretako larrien unitatera eramantzen zituzten.

A ZER NOLAKO KARNABALAK AURTENGOAK!!

Gabonak pasatu dira eta hona hemen berriro kriston jaia egiteko aukera paregabea: Karnabalak!!





Arrate Diez

Iñigo Azkona

Aurten ere betiko errituala bihurtu den mozorroen jaitsiera eguerdiko hamabietatik ibili zen auzoko kaleetatik bueltara. Eta horren ostean, danok ospatzera! Batzuk etxetik mozorroa jantzita atera ziren kalera, beste batzuek lagun baten etxean bildu eta mozorroto, eta besteak mozorroto barik etxetik atera ziren eta inor baino mozorrotoago heldu etxera heldu ziren (heldzea lortu zutenak, noski). Denek egin zuten topo Santutxuko ihauterietan.

Eguraldiak mesede onik egin ez bazuen ere, jendez gainezka zeuden auzo honetako kale gehienak. Batzuk auzoko karnabalak zapatuan hasten direlakoan, goizeko lehen orduetatik zizare batek baino "ese" gehiago egiten zituzten zuzen ibiltzeko ahaleginetan. Beste batzuk, ordea, zizarearena egiteko domeka gauera arte itxaron zuten; dena dela, narraztien senide bihurtu ginen danak egun hartan.

Baziren mendizalez mozorrotutako koadrilak, beren mendi espedizioko kanpamentu basea edozein lekutan finkatzen zutenak. Edo- eta, Barbie panpinez jantzitako neska taldea, monstro jantzita-koekin topo egiten zutenak. Zezenketari ezetza aldarrikatzeko asmoz, zezen eta torero taldea ere bueltaka ibili ziren auzoko kaleetatik. Bazen ezkondu nahi zuen bikotea ere, apaizarekin eleizara sartu baino, poteak hartzea nahiago zuena. Edo-eta, porroak egin eta egin, berrogeita hamar urteak pasatxo zituen punky taldeak ere bazuen zer esana, "los viejos rockeros" ziruditen INSERSOtik ihes egin nahian. Denetarik ikus zitekeen egun hartan auzoko kaleetatik, hala ere, hurrengo urtera Arte hainbat egun izanda, ez ezazu utzi mozorroaren ideia azken egunerako!



Tabernetan zintzoenak uraren koloreko edaria edaten zuen, baina uraren antz handiena zuena izotzak besterik ez ziren, auskalo zer ote zen hori...

Bazkalordurako Sorgintxuloko lokaleetan ehun bat pertsona bildu ziren, entsalada eta indabei "ordago" bat emateko. Batzuek "karta blanka" erakutsi zuten arren, gehienek oso gustura ibili ziren beren masailak eta aginak batetik bestera mugituz. Bigarren platerreko okelak eta konpotak ere asetuta utzi zituen han bildutako guztiak.



Txurdinaga Eskola irratiz mintza praktikan

Konturatuko zineten moduan, atal berria dugu honako hau. Mahatserriko ikastetxeetan egiten dituzten ekitaldiak izango dira mintzagai, eta bertako ikasle zein irakasleak izango dira protagonista. Atal berri honi hasiera emateko, Txurdinaga Eskolako irratia hartu dugu aztergai. Hona hemen Anjel Goioagak irratia helburu eta funtzionamenduari buruz idatzi diguna:

⇒ **Anjel Goioaga Rekalde** (Hizkuntz Normalkuntza eta Irratiko arduradun irakaslea)

Txurdinaga Eskola hasiera-hasieratik euskara suspertzen

tia. Iazko ikasturteko azken hiruhilabeteen hasi ginen irratsaioak prestatzen eta ematen.

Irratia, hizkuntzaren lau funtzioak -hitz egin, entzun, irakurri eta idaztea- "beste era batera" lantzeko tresna



Ikasle batzuk irratsaio batean

eta lantzen ari da. Betidanik bere eguneroko zereginen helburu nagusietako bat honako hau eduki du: Euskara izan dadila irakaskuntza sistemaren berezko hizkuntza, eskola hizkuntza zein komunikazio hizkuntza, ohiko irakas-hizkuntza gisa, zein irakas-ekintzak ez diren eren. Helburu hori lortzeko bidean bultzada handiagoa eman asmoz, Hizkuntz Normalkuntza Proiektua prestatu da eskolan, euskararen erabilera suspertzeko, indartzeko eta egoera guztietan normaltzeko. Normalkuntza bide honetan kokatzen dugu eskola irra-

egokia iruditu zaigu. Hori dela eta, irratia bidez euskararen erabilera praktikoki eta era naturalean bultzatu nahi genuen. Hala nola, euskararen erabilera irakasbideetatik at, ikasleek, interesatzen zaizkien mezuak bidaltzeko erabil dezatela; adin eta ikastalde ezberdinetako haurren artean euskarazko komunikazioa sustatzea modu funtzionalago eta motibagarriago batetan; edota euskararen trataera berritzea, ahozotasunari adibidez, garrantzi berezia emenez. Labur esanaz, hizkuntza eta haurren behar izan eta nahiak modu atseginez hurbiltzea da asmoa.

Eguneroko eginkizuna

Irratsaioak Zikloka antolatuta daude. Lehenengo Zikloak (1. eta 2. mailak) goizeko 9:10ean emititzen du, 10 bat minutuko iraupenez. Bigarren Zikloak (3. eta 4. mailak) 10:50ean du irratsaioa.

Hirugarren Zikloak berriz (5. eta 6. mailak),

12:20ean, ostiraletan izan ezik, ostiraleta 12:50ean baita.

Irratsaioaren egiturak bost atal ditu: agurra, egural-

dia, urtebetetzeak, albiste txikia eta

gure agur berezia. Egitura mugatua izan arren,

Ziklo bakoitzak egokitu egiten du bere ahalbideen arabera. Albisteei dagokienez, eskola barrukoak zein kanpokoak izaten dira eta horiek talde bakoitzak aukeratzeko dituzte.

Lehenengo Zikloan izan ezik, ikasleek prestatzen dituzte irratsaio guztiak, aurrean egitura izanik. Haurrek badauzkate esamoldeak eta materialak irratsaioak antolatzeko; euren zeregina, biltzea, kokatzea eta idaztea da. Hori guztia eginik, ikasgelan ahoskera landu, eta "zuekin Txurdinaga Eskolako Txepetx Irratia, jolas eta solas. Gure banda FM-ko 107.2 da" esanaz ematen diote hasiera irratsaioari eguneroko.

Ikasleen erantzunari dagokionez, galdera-sorta bati erantzunaz egindako balorazioa aztertuz, haur gehienak gustura, pozik eta interes handiz agertu dira. Hala ere, baten batek aspertu egin dela edo zaila egin zaiola esan duen. Irratsaioaren atalik gustukoena "gure agur berezia" da ikasleen artean, eta ondoren "albiste txikia".

Horrez gain, ikasleen proposamenak ikusita, aurrerantzean egitura zabaldu egin beharko litzakeela ikusten da eta irratsaioan kirola, elkarrizketak, errezetak etabar gehitu beharko lirakeela.

Bestalde, orain arte egindakoa aztertuta, gehiago sakondu behar dugula argi eta garbi ikusten da, benetan baliabide aproposa baita euskara lantzeko, sakontzeko, suspertzeko, normaltzeko. Eta kontutan izanik nolako jarrera eduki duten haurrek orain arte, itxaropentsu gaude etorkizunari begira.

Badakigu eskola batetik eguneroko entzuten gaituztela, baina ondo



legoke entzule gehiago edukitzea. Zergatik ez zu? Lehen aipatutak bezala eguneroko plazaratzen gara eta irratsaioen ordutegiak azalduta daude. Zure esku dago. Gure zeregina umeak euskara munduan burubeltarri sartzea da eta pozik gaude lan honetan. Amaitzeko hauxe diot: Irratia eta euskara biak batera

INMOBILIARIA
Gelaya
HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...
Iturriaga, 92
Tf. 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo


BASTERTXU

TABERNA
Ricardo Bastida plaza


ekilore
Iturriaga, 92 Santutxu


Bikotz
ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIK ★
Dart. Arsuaga SANTUTXU
Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO

Otoio
Mendi
Sta. Klara


Kalku

Desilusioa gainditu nahian

Unai Cuevas

Aretoko futbola edo futbol-sala delakoa azken urteotan ospetsu bihurtu den kirola dugu. Hala ere, hurrengo lerroetan aipatuko dugun taldeko jokalariek orain dela urte asko eman zituzten lehenengo pausuak kirol honetan. Gehienak, ikastolan hasi ziren kirol hau praktikatzen. Taldea sortzearen ideia, kalean ikusi eta irakurritako kartel baten ondorioz etorri zen. Kartel honek, txapelketa bat eta bere oinarriak iragartzen zituen. Beraz, lagun talde bat bildu eta taldea osatzea erabaki zuten. Taldeari Berriozar izena jarri zioten. Bai! Iruña ondoan dagoen herria bezala. (Izen honen zergatiak historia luzea daukan legez beste baterako utziko dugu.)

Fidantza jartzeko eta txapelketan izena emateko jokalarri bakoitzak 2.000 pezeta jarri behar izan zituen. Ondoren, ikastola batean jokatzeko dutenez (Santutxuko Karmelo ikastolan), Udalarri 25.000 pezetatako fidantza bat ordaindu behar izan zioten (gero bueltatzen zitzaiena), nahiz eta errealtatean Udalak hogereko bat bera ere ez jaso. Bestetik, kamiseta atera zuten eta honetarako 1.300 pezeta jarri behar izan zituzten. Orotara, bakoitzak 6.000 pezeta inguru jarri behar izan zituen.

Berriozar taldea, 21-25 urte bitarteko 12 gaztek osatzen dute. Hala ere, partiduetara normalean 10 inguru joaten dira. Gehienak, Mahatserrikoak dira, nahiz eta Sopolako atzeritarren bat egon.

Txapelketan egokitu zitzaizkien multzoa 9 taldez osatua zegoen. Hauetatik, gehienak Bilboko auzo ezberdinetakoak ziren Usansolo eta Zeanuriko taldeak izan ezik. 9 talde horietatik lehenengo biak sailkatzen ziren eta hirugarrenak ere puntu sorta dexentea lortuz gero (beste multzoetako taldeekin konparatuz). Dena dela, sailkatzearen arazoa Berriozarrekoek ez dagokienez zerbait da, sailkapenean azkenengoak ez izatearekin nahikoa izan dutelako (azken aurrekoak geratu dira!).

Hasiera batean, ilusio handiz hartu zuten txapelketan parte hartzearen kontua. Baina, partiduak (eta porrotak) heldu ahala ilusio hori desagertuz joan da.

Esan beharra dago, hasieratik handicap bati aurre egin behar izan diotela: ez dute atezainik aurkitu eta taldekide ezberdinek jokatu dute atepean, azkenean, batek atezain bezala jokatzeko erabaki izan duen arte. Gaztelerazko esaera batek dion bezala: Txakur argalak, arkakusoak ugari.

Desilusioaren irudi nabarmena taldeko bi kidek eginiko apostua izan daiteke: batek bi partidu ez zituztela irabaziko iragarri zuten hasierako partiduetan eta besteak baietz. Barregarria irudituko badezake ere, baikor azaltzen zen taldekideak txapelketa bukatu aurretik dirua ordaindu nahi

izan dio bere kideari. Futbola futbola da edota futbolearen gerta-tzen diren gauzak bezalako esaldiak definitu daitezke apostu hau.

Txapelketa bukatzeko partidu bat falta denean, 45 puntu posibleetatik 5 puntu besterik ez dituzte lortu: garaipen bat eta berdinketa bi. Honekin, azken aurreko tokian mantenduko direla uste dute, azkenengo postuan dagoen taldea beraiek baino txarragoa dela uste baitute. Gauzak honela, beren ustetan izandako partidurik garrantzitsuenaren kontra jokatu behar da. Partidu hau 3-5 irabazi zuten, lortutako garaipen bakarra bihurtuz.

Garaipen honekin, azken aurreko postua eta galduta zuten konfidantza bereganatu dituzte. Hala ere, ez dute uste geratzen zaien azkenengo partidu irabaziko dutela.

Era askotako eta kolore guztietako porrotak jasan izan dituzte baina latzenak Zeanuriko taldearen aurkakoak izan dira. Zeanurik, 11-2 galdu zuten eta etxeko partiduan 1-10 (beren iritzi jokaturiko partidurik txarrena). Hala ere, gogoratu beharra dago (Berriozarrekoek dioten bezala) lehenengoaren aurka galdutako partiduak direla.

Azken partiduetan, jasotako emaitza eta egindako lanaz gain, txapelketa bukatu ondorengo egingo duten bazkariak hitzegin ohi dute. (Beraz, ez daude beren lanean kontzentraturik). Azken finean, bazkari horrek desilusio eta atsekabea ahazteko balioko die. Hurrengo denboraldira begira, antolatzaileek bidalitako galdetegi bete dute txapelketari buruzko iritzia eta gorabeherak aztertuz. Hau, orokorrean nahiko positiboa izan da, Talde batzuetako jokalariekin izan dituzten arazoak kontutan hartzen ez badituzte.

Taldekide batzuk, aurtengo denboraldiarekin nahikoa eta gehiegi izan dutela adierazi dute eta datorren urtean ez dutela jokatu argi daukate.

Mahatserrian, hainbat kiroltalde irabazle eta galtzaile ugari ditugu. Oraingo honetan, azken hauetako talde baten historia edo gorabeherak kontatu nahi izan ditugu (historia beti irabazleek idazten ez dutelako). Bertan aldizkariko kirol orrialdeetatik agur bero bat eta zortea opa diegu Berriozar taldeari. (Hurrengo denboraldiari begira, noski!)



Begoñako futbol taldeak aurten 75 urte betetzen ditu

75. urteurrena dela eta Begoñako futbol taldeari buruzko oroigarriko liburu bat prestatzen ari dira zuzendari ohi eta jokalarri ohi artean.

Kirol mailari dagokionez, egintza garrantzitsuenak Begoña eta Bilbao Athletic-en arteko partidua izango da. Nahiz eta oraindik baieztatua ez egon, maiatza-ekaina inguruan jokatu dela dirudi.

Gizarte mailan, aldiz, bazkari bat antolatuko da Begoña S.D.ren historian parte hartu duten guztiei zuzendua. Talde honen historiari buruz zerbait jakin nahi baduzu aldizkari honen aurreko ale batean aurkituko duzu.



Begoñako taldeak hainbat ospakizun izango ditu aurten.

Santutxu F.C.ren hauteskundeak

Martxoaren 1ean presidente berria aukeratzeko ezohizko biltzar orokorrerako deia egin zuten San Francisquito elizan Santutxu Futbol Taldekoek. Orain arteko zuzendaritzako batzak, datorren Ekainaren 30ean agintaritza bukatzen duenez, hauteskundeak martxan hasi ziren. Martxoaren lehenengoko biltzar horretan, hauteskunde bilkura izendatu zen hauteskunde jarraipena egiteko asmoz. Martxoaren 5ean, aldiz, hautesle errolla eta hautagaien aurkezpenaren epea onartu ziren. Bestetik, hil beraren 17an aurkeztutako hautagaien zerrendaren aldarrikapena eta onarpena burutu zen.

Martxoaren 29an, bestalde, ezohizko biltzar orokor berria eratuko da eta presidenterako hautagaien botaketa egingo da San Francisquito elizan, 6 tatik 9 rak bitartean.

GORRIA

Aldizkariak, gozokiak, bideoak, ...

Santutxu, 18 - Tfnoa: 433 27 05

Zure
publizitatea hemen

944 735 448

Oteizak badu errelebia Mahatserrian

Jakina da Mahatserrian artista gazte ugari ditugula. Guk, horietariko birekin egon gara eta arteari buruz hitzegin dugu. Jon Tirado, Begoñakoa da eta eskultura ikasi du Leioako Arte Ederren fakultatean. Momentu honetan espezialitate berdineko doktoretzako lehen urtea betetzen ari da. Txema Angisola ere Arte Ederretako eskultura espezialitatean lizentziatua da, baina Jonek baino urte bat gehiago darama doktoretza egiten.

⇒ **Unai Cuevas**

Noiztik datorkizue eskulturarako grina?

Txema: Nire kasuan, karrera batekin nasi nintzen, bukatu nuen eta lanean hasi nintzen. Baina konturatu nintzen ez nuela funtzionatzen. Orduan, beti gustatu izan zaidanarekin hasi nintzen: eskulturarekin. Eta zuzenean sartu nintzen eskultura espezialitatea egin-go nuela jakinez.

Zergatik aukeratu duzue eskultura eta ez margolaritza, argazkigintza... edota beste- ren bat?


Jon: Ba, momentu zehatz batean gehien deitu nauena izan delako. Karre- ran sartzen zarenean dauden adar ezberdinak lantzen dituzu: margolaritza, marrazkia, forma... eta gero, aurrerago irudi anatomikoa, keramika eta argazkilaritza ere. Batzuk, hasieratik garbi daukate zer egin nahi duten. Beste batzuk, interes edo kezkatatik etortzen dira; unibertsitate- torterakoan garatu eta landu egiten dute eta ikusi zein den interesatzen zaiena.

Txema: eskultura errealtatearen antz handiena duena da. Zuk, irudi bat egiterakoan, munduaren ikuspe-

gi partikular bat egiten saiatzen zara. Eta, errealtatea, eskulturaren antz handiena duena da: hiru dimentsioak eta espazioa. Dimentsio biak irudimenari dagozkio gehienbat, eskultura baino gezur handiagoa da, errealtate gutxiago islatzen du.

Zeintzu materiale lantzen dituzue?

Jon: Batez ere harria lantzen dut eta noizean behin egurrekin jolastea gustatzen zait.



Txema Angisola eta Jon Tirado (tresnarekin).

Txema: Nik, materiale txiroak, pobreak erabiltzen ditut. Materiale- ek, memoria edo historia bat edukitzea interesatzen zait: izan duten bizitza... xarma berezi bat dute pasatu den denbora guztiagatik. Egur zaharra erabiltzen dut, materia- le hotzagoekin kontrasteak ere erabiltzen ditudalarik.

Zuen lanak saltzen dituzue?

Jon: Ahal bada bai. Hala ere, eskari

gutxi dago bai sentsibilitate ezaga- tik, bai baliabide ekonomiko ezaga- tik.

Txema: Saltzerakoan arazo bat izate- n da. Lan bat saltzeko, askotan galerien bidez egiten da eta galeriak ere beren portzentaia eraman behar du. Hala ere, argi dago hemen ez gaudela dirua irabazteko.

Eskulturaz gain beste arte ederrik lantzen al duzue?

Jon: Argi dago azkenean etapa ezberdinak pasatzen dituzula eta beste adarretan interesatzen zaizki- zun gauzak ikusten dituzula. Adibi- dez, egiten dituzun lanei argazkiak ateratzen dizkiezu eta soberan geratzen diren argazkiekin beste argazki batzuk egiten dituzu... Baina nire kasu konkretuan oraindik ez zait aldatzeko momentua heldu.

Ba al duzue gogoko eskultorerik?

Txema: Munduko txapeldunak daude. Adi- bidez, Oteiza mundu- ko txapeldun bat da. Munduko txapelduna dela diot, eskultura erabat kontrolatu due- lako eta zerbait kontatu nahi izan didanean ezin hobeki heldu kontatu didalako eta heldu egin zaidalako.

Non aritzen zarete lanean?

Jon: Hemen (Arte Ede- rretako fakultatean duten gela batetan) eta etxean.

Txema: Niri beka bat eman didate Bilboarten eta hor ari- tzen naiz.

Zein motatako eskulturak egite dituzue?

Jon: Nik harrizko eskulturak egiten ditut gehienbat eta hauekin gerta- tzen den arazo larriena desplaza- menduena izaten da. Edozein harririk pisua duenez, leku batetik bestera

mugitzerakoan arazoak etortzen dira.

Formari dagokionez, hasieran forma klasikoekin hasi nintzen, forma anatomikoekin. Gero, pausu bat gehiago eman nuen forma horiek beste ideia batzuekin nahas- tuz.


Eskultura eskuaren kultura dela esan daiteke?

Txema: Artean, eskua ez dago hain sarturik edo hobeto esateko eskuak ez du hain garrantzi handirik. Sentsibilitatea garrantzitsuagoa da, sentsiblea izatea. Oteizak, esku bat erabiltzen du ixteko eta bestea bizitza irekitzeko.

Jon: Norbaitek pieza edo lana idea- tu edo pentsatu dezake eta beste norbaitek egitea agindu. Kasu horretan ez ditu eskuak erabili.

Eskulturak irudimena martxan jartzen al du?

Jon: Nire ustez, sormena norberarengan dago. Ni kreatiboa nintzen fakultatera heldu aurretik. Eskulturak ez dizkizu atek irekitzen, sormena zuk daukazu.



Sormena funtsezko elementua da. Eta eskultura sormena bideratzeko bide bat da.

Txema: Zure objektuak egiteko sorme- na erabiltzen duzun heinean objektu horiek eragiten dizute gauzen ber- planteaketa. Eta gauzak berplanteatzen dituzun heinean pixkanaka eraldatzen joaten zara.

Orduan, eskultura eta sormena bat doazela uste al duzue?

Jon: Erabat

Txema: Bai.

Definitu zaitezte eskultore bezala.

Jon: Nik esango nuke ukipena gus- tatzen zaidala, materialarekiko kontaktu fisikoa. Bolumen eta pisuak maneiatzea, eskuztatzea eta izerdia botatzea.

Txema: Ni ez naiz definitzen niri dago- kidan zerbait delako. Nire intimitate- ren parte bat delako.

Artearen ikuspegi ezberdinak

Bi artista diren legez eta artista bakoitzak bere berezi- tasunak dituen bezala, Txemak eta Jonek ez dute bat egiten eskultura edota arteari buruzko iritzi batzue- tan.

Jonek, ideia bat eskultura batetan moldatzerako- nean zailtasun teknikoekin aurkitzen dela adierazten du. Burura sekulako ideia etorri ahal zaiola baina eskultura egiterakoan zatitxo bat apurtu, ertz batetan akatsa ageri edota zerbait tolesterakoan arazoak azaltzen direla. Txemak, bere partez, adibide horre- tan ez du hainbat arazo ikusten. Berak dionez hori arazo teknikoa da eta azken finean arinago kontrola- tzen da erabilitako lenguaia dakartzan arazoak baino. Bere iritzi- z, materialea menperatzen ikasten duzu, baina zailena estrukturan bidez estrukturan lenguaia menperatzea da. Hau da, egiten duzuna ez zuk bakarrik ulertzea baizik eta ondo kontatua ego- tea. Ildo honetatik, bi eskultoreen iritzi ezberdinak agerian geratzen dira berriro ere. Jonek esaten due- nez, "doktoretzako klaseetan ez da jasotzen jendeak arte lanak ulertzeari zuzendutako irakaskuntza bat, baizik eta guztiz kontrakoa: jendeak gero eta gutxia- go ulertzea". Terminu bereziak eta edonork uker ez dezakeen informazioa jasotzen ari direla aipatzen du eta " honela jendeak ezin dezake arte lanen sinbolis- moa ulertu" esaten du.

Txemak, beste lanbideekin konparatzen du artistaren lanbidea. Bere ustez, ez da beste lanbideekin gerta- tzen den gauza berdina ematen. "Zuk zirujau bati ez diozu zalantzan jartzen nola egiten duen" komenta-




tzen du. Berak, artistek zalantzagarrtasun kutsu bat pairatzen dutela kritikatzeko eta iritziak emateko momentuan kritiko ugarien ezjakintasuna oso nabar- mena dela ere.

Elkarrizketa aurrera joan ahala, artistentzat oinarriko galdera planteatu diegu; galdera guztien ama: zer da artea?

Jonek, argi utzi digu bere iritzi- a esaldi esanguratsu eta erabateko baten bidez: "arte itzelezko gezur bat da, existitzen den gezurrik handiena". Erantzuna argudia- tzeko momentuan, artearen inguruan mugitzen den faltsukeria aipatzen du. Adierazpen hauei aurre eginez Txemak inguruko mundu hori artearen mekanismoak direla erantzuten dio; horiek ez direla artea. Txurdina- gako eskultore honentzat, artea lanean dagoenean eta egiten duenarekin gustora sentitzen denean artea egi- ten ari da; hori da artea berarentzat, eta "arte existit- zen da" berak dionez.

Hala ere, Jonek berriro ere erasotzen dio: "Arte hori baino gehiago da". Begoñakoak futbolaren adibidea sartu du eztabaidan (futbola artea ote?): "futbola bule- goak eta komentarioak era badira". Txemak, bere aldetik horiek mekanismoak direla erantzuten dio berriro ere. Jonek: "Baina futbolaren barnean daude". Txemak: "Baina horrek ez du futbola gezur bat bihur- tzen".

Azken finean, Jonek ez du artean guztiz sinisten. Txe- marentzat, aldiz, artea argia eta garbia da: "artearen estruktura eta lenguaia menperatzeak gauzak nolabai- teko sentsibilitate eta magia batez espresatzen lagun- tzen dizu". Ikusten denez, artisten munduan ere arteak ez du erabateko oneritziarik.



Aratz (1422 m.) Zalduondotik

Oraingo honetan Araba eta Gipuzkoa arteko mugara abiatuko gara, Aratz mendira. Aukera ugari ditugu mendi hau egiteko; baita Zalduondo edo Araia herrietara errepidez heltzeko ere.

Nahi baduzue errepide nagusitik, Araia herrira joan zaitezke. Guk honako bidaia egin genuen: Gasteizeko errepidea hartu (Barazarretik), eta Legutio pasatuta ezkerretara Landako errepidea hartu, handik Urbarri Ganboa eta beste herri batzuk zeharkatu ostean Zalduondo herrira (613 m.) heldu ginen.


Zalduondon bertan "Sondeo de Urkilla" ipintzen duen kartela ikusi genuen, errepide estu baina onari jarraituz sei kilometro egin ostean "Petrolera" izeneko lekura helduko gara, hemen utzi genuen kotxea.

Aurrez aurre dagoen pistatik igotzen hasiko gara, handik 15 minutura erromatar galtzada ederra eta ospetsua aurkituko dugu.

Galtzadatik jarraituz, lehenengo errebueltan ikur batzuk daude, ezkerretarantz Urbia norabide markatuz. Hemendik eskuinerantz igonez lepo bateraino helduko gara. Galtzada orain beherantz doa, eta gu eskuinerantz "Aratz" izenez oso ondo seinalatuta dagoen pista batetik pago artean sartuko gara, laster landa txiki bat zeharkatuko dugu eta berriro beste pagadi bat gurutzatu ostean landa handi batera helduko gara.

Landa honetan Zabaletaren ("El Sordo") etxola dago, ondoan beste etxola batekin elkartuta, hau korta bezala, bere aldamenen harresi batzuk. Landa zuzen zeharkatuz, Araiatic datorren bidea ikusiko dugu laster. Hemen zuhaitz eta harrietan idatzita dago Altsasu (herria) eta Allaitz (mendia) izenak, bere norabideak markatuz.

Hemendik, Aratzeko maldatik, bidexka batetik jarraituz, laster Altsasu, Allaitz eta Otzaurte izenak aurkituko ditugu berriz ere harri batzuetan idatzita.



Berton pasabide bat dago eta hemendik piska bat jaitzita, beste pagadi txiki batera irteten garenean, ikur gorri batzuk ikusiko ditugu, bidexkak lehen aipatu ditugun lekuetara jarraitzen badu ere (Allaitz, Otzaurte,...), gu ezkerretarantz abiatuko gara eta ordu laurdeneko aldaa gogorra igon ostean Aratzeko tontorrean egongo gara.

Erpin geodesikoa dago eta ondoan bi txartel-kutxa, igoera osoa ordu eta erdian egin daiteke.

HOROSKOPOA

- Aries:** martxoaren 21 etik apirilaren 20ra.
Botika bila, aspirinak non dagozan? buruko min horrek ez dira aspirinakaz osatzen, halandaze, bada-kizu zer egin behar dozun.
- Taurus:** apirilaren 21 etik maiatzaren 20ra.
Ondo dago hori, gero! bizitza erdi laguneri gauzak eskatzen eta zugana ezingo ete gara laguntza eske etorri?
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Goizean goizeti jaiki, sasoz lanera, dana puntual... ez dozu gurako sinistea ez jatzunik arean jazo, ezta?
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Bai, badakigu errezagoa dala dendarik denda ibiltea. Akordetan zara armairuko ze lekutan dagozan erositako azken jertseak?
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Izar guztiak zuri begira dagoz, zu zara munduko argitua. Baina kontuz, hori etxe ondoko farolea da eta!
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Sagardotegiak zure zain dagoz, bizkaitar txapela eta beste pailazokeri bat eta giri perfektua izagno zara gipuzkoaldean.
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Eutsi goiari! jendeak inbidia baino ez daukotzu! zu zara onena! txo, animoak ondo dagoz, baina dana sinestea be...
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Ai ze polita den gure bizkaia... begoñako andra mari... segidu kantetan onena zara-ta! hurrengo erri-bera eta baldorba buruz!
- Sagittarius:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Badator badator... oin bai oin bai... egon zatez hor geldi, eta leloan pare ikusiko dozu bizitza aurretik pasetan!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Makaltxu zabiltz azken aldian, bitamina faltan? urten etxezuloatik behingoan eta arin biztuko jatzuz begiak!
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Beti atxaki bila egia ostonduteko. Segidu bide horretan, eta amildegi ertzer ailegakeran emongo dozu bueltea.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Eguraldia bai hobetzen dabil... baina oindino hondartzara joatea... hori bai, e, gogoz bazabiltz, segidu lasai.

agenda

- Asteazken eta ostiralero arratsaldeko 6etatik 8etara ludoteka Zurbaranbarriko Gizarte Etxean, Txiki Gazteak aisialdi taldearen eskutik.
- Asteartero arratsaldeko 7etatik 8etara aerobic Zurbaranbarriko Gizarte Etxean. 15 urtetik gorakoek soilik eman dezakete izena, mila pezetaren truke. Antolatzailea: Txiki Gazteak aisialdi taldea.
- Zurbaranbarriko jaiak hurbiltzen ari direla eta, auzoko jaiak antolatzen laguntzeko prest dauden guztiei dei egiten die Jai Bartzordeak, asteazkenero arratsaldeko 8etan Gizarte Etxean egiten den batzarrean parte har dezaten.
- OHARRA: Santutxuko Familia Elkarteak, errege egunean egiten den Sei Izar kroseko parte hartzaile guztiei dei egiten die, diploma jasotzera pasa daitezen. Astelehenero arratsaldeko 8etatik 10ak bitartean banatzen dira Familia Elkartearen egoitzan (Iturriaga 55, 1. ezkerre).

bertan ETXEAN

Urtebeteko harpidetza

11 zenbaki: 1000 pezeta. Bete txarteltxo hau eta bidali hona:

Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre.
48004 Bilbo

Izena:
Abizenak:
Kalea:
Zenbakia:
Solairua:
Herria:
Herrialdea:
Posta Kodea:
Telefonoa:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito):

Entitatea: Sukurtsala:

Kodea:

Kontu zkia:

Sinadura

1999ko martxo - 11. zkia.

gara 
nor ote gara?

Doinua: "Leiho ertzetik" (Egaña)

Egunkaria, berri berria iragartzen dugu, hara! euskaltzale ta abertzaleok emozioaz dardara. Biba ta gora! oihukatzen da kanta, dantza ta algara; indarrez jo da aldaba hau da erantzun gisara. Lehengo baino hobea dugu sendoagoa ahal bada, jakin dezaten mundu osoan: Euskal Herrikoak GARA! (bis)

Euskaldun GARA, baina oraindik nagusi dugu erdera, urte askotan galtzen joan da emeki gure hizkera. Bazterkeria eta jipoia beti izan da sobera, legearen arabera, bortxakeriaz gainera. Azken boladan irauli dugu hizkuntzaren egoera, hedabidean gailenduko gurea dugun euskera. (bis)

Langile GARA, esplotatuak herri xeharentzat lotsa? Batzuen ustez, bizitza hori halabeharrez mingotsa. Baina mingaina ta idazkera izanik beti zorrotza, iraultzaileen asotsa, aberatsentzat arrotza. Diruz eskas ta medio gutxi baina zabala bihotza, urte osoan izango gara langile denen ahotsa. (bis)

Presoak GARA, sufritzen dugun zapalketa da bortitza, kartzeleroak harat ta honat gugaz jolasten dabilta. Herriratzea ta askatzea ezinbesteko baldintza; borrokatzea da giltza, kartzelak haustea ditxa. Ziega beltzan egonik ere maitatzen dugu bizitza, kioskoetan egunero da espetxeratuen hitza (bis).

Iheslariak, GARA guztiok agurtzen zaitugu lagun, EGINen falta azken boladan nabari eta ezagun. Zuen sendia, jaioterria, daukazue hortik urrun, berri gabezia astun, ez sentitu euskaldun! Segidu betez sator lanean gu ere gaituzu jardun, babeslekutik herri ahotsa dezazuen ozen entzun. (bis)

EGIN GARA gu, azken udaran Garzon jaunak zigortua, zuen aurrean bizirik dirau berak kartzelaratua. Gorpuztu dugu aurrekoaren xede ta izpiritua, berriz da kaleratua, bikainia dugu frutua. Jende arruntak bere arnasaz betirako zuzpertia, hitza kendu nahi ziguten eta entzungo da sendotua (bis)

Herri bat GARA, aintzinakoa askoren artean zaharra, menderik mende iraun duena hezur, mami ta giharra. Erakutsi du une orotan kemena eta indarra, lehen eta orain azkarra, bizinahia ta sugarra. Jakin dakigu norabidea, noruntz dagoen iparra: etorkizuna eraikitzeko gidari bedi Lizarra. (bis)

Mertxa GARA gu, urrats honetan taldeko zuzendaria, "Salu" bezala langilea ta seguru aitzindaria. Ez dut pentsatzen kargua denik inorentzako saria; zama ez da nabaria? baina ez da astakeria! Denon artean egina dugu guztion egunkaria, herria bera izanez beti ametsaren gidaria (bis)

Zuekin GARA, zuen eskura kioskoetan goizero; herritan oro, irakurriaz, gura zinduzket bezero, kafesnea ta opil goxoaz gosarian bero-bero. Gogor aritu ezkerre, bizirik nauzu luzero. Askatasuna lortu artean jardutea dut espero, burujabetza ta pakearen oihua naiz egunero. (bis)

Tasio Erkizia
Basauri, 99-I-20